

ELKARRIZKETA BAT ITZIAR AIZPURUA-REKIN

Burgos-ko Gerla-Kontseilu ospatsu hartan hiru emakume zeuden kondena-tuen artean: Jone Dorronsoro, Arantza Arruti eta Itziar Aizpurua.

Gaurko PUNTO Y HORA honetan, Itziar mintzatuko zaigu Euskadi-ko goeraz; eta xeheki egingo du, eta inolako trabarik gabe. Zapalkuntza, gutxi-k bezain bertatik ezagutua duen emakume abertzale bat aurkituko du irakurleak. Guk, ahalean, hitzez hitz emango ditugu haren iritzia; eta, ahalean ere, De-bako bere hizkera gehiegi birmoldatu gabe.

Egia esan, eta hau aitortuaz azkeneko «arkeri»-aztarnak gaindituak ez dituen galdegilearen ahulezia ageri da agian, badi-rudi emakumearen xarma eta abertzalearen zintasuna batera topatzea, ezinez-koa dela, edo hor nunbait. Itziar ezagututa, ordea, kontraesanik ez dagoela aitortu behar da.

P. H.: Eta orain zer moduz zaude, Itziar? Bizkortu al zera?

ITZIAR: Bai, bai. Giltzurdira kendu dida-tenez geroztik, askoz hobeto nago. Sei hi-labete joan dira, dakizunez; eta orain onodo nago.

P. H.: Eta nondik nora gaitzaldi hura uda-berriaren hasieran? Ezer esan al dizu osagileak?

I.: Bai horixe. Osagileak argi eta garbi esan zidan nola hondatu zitzaidan eskui-naldeko giltzurdin hura: «una lesión anti-gua producida por golpes recibidos en la zona». Eta erabat asmatu zuen...

P. H.: Erabat asmatu zuela?

I.: Bai, bai. Eta ez dut ezer izkutatuko. 1.969ko martxoan politziak detenu-nin duenean (Larena erori ondoren; eta Jokin ene senarrarekin batera, Deban bertan), Sainz-en eskuetara eramanez ninduten. Ni, ikusten duzunez, ez naiz oso emakume handia; eta Sainz, berriz, gizatar handia eta sendoa da. Deklarazioak behar zituen Sainz-ek; eta hona zer bururatu zitzaion: ni hanketatik heldu, zintzilik beraz, eta buruz bera nindukala; eta paretaren kontra, jo-ta-ke! Burua guztiz minberatua, eta bi sai-hets-hezur hautsita: horra hor Sainz-en lana. Eta giltzurdinaren ere arras hondatuta: bat kendu arte ez dut bakerik izan hamar urte luze honetan.

P. H.: Eta Sainz hori bera da gaur "Dirección de Seguridad" delakoan buru agertzen dena?

I.: Berbera, bai. «Ekintza» haiek sarizta-tzeko, nunbait, orain gorago dago: «as-censo» galanta harena... Eta ez hori baka-rrik: hamazazpi egunez eduki ninduen komisarietan, eta behin eta berriz esan zidan bortxatuko nindutela. Hamar bat politziar inguratzen ninduten, eta ni denen erdian etzan erazten ninduten ha-lako mahai baten gainean. Eta orduan



Itziar Aizpurua

hau galdetzen zidaten: «¿A cuál de ellos escoges para ser violada ahora mismo?»

P. H.: Eta zer kargu zegoen zure kontra?

I.: Bai nik, bai Jokin-ek, bai Burgos-ko Kontseiluko guztiok, Manzanas-en herio-tza genuen salaketa nagusizat. Manzanas komisarioa, batzutan bezala, «estado de excepción» genuen 1.969-ko martxoan. Eta politzia ez zekiten: segurtasunezko arrazoinengatik, izkutuan ezkondu ginenez; eta elkarren salatzaile ez gertatzeko. Baina Debara gure bila etorri zirenean, ez ziren txantxetan ibili. Jokin-ek sei metro-tatik bera egin zuen salto, ihes egin nahiz, eta haragi-etenak izan zituen oso luza-roan. Bota zizkioten metralleta-andanak, debar guztiak entzun zituzten; eta nola zegoen galdetu nuenean, «ha muerto» erantzun zidaten. Hurrengo aldiz, eta bi-zirik... Burgos-ek ikusi nuen!

P. H.: Noiz sartu zinen ETA-n? Eta zerga-tik ETA-n?

I.: Oker ez banago, 1.966-ko bukaera al-dian hasi nintzen harremanetan ETA-koekin. Berak etorri ziren nere bila, eta baietz erantzun nien. Familiaz ez nintzen ni PNV-koa. Gure aitak, hori bai, gerra

egina zuen ELA-koekin; eta etxean nik beti aurkitu dut abertzaletasuna bizirik. Baina PNV-koen tradizioz ez zegoen gure etxean. Eta, bestetik, zer egiten zuen PNV-ak? Euskadin askatua, euskalduna eta batua ETA-k proposatzen zuen garai hartan; eta burruka egiten zuen gainera helburu horren alde. Eta ETA-n sartu nintzen?

P. H.: Eta 1.967 baino lehenago, ezer egin al zenuen Euskadiren alde?

I.: Gazte xamarra nintzen batetik. Baina euskararen aldetik jo nuen hasiera-hasi-eratik. Oso ondo gogoratzen naiz: zazpi urte nituenean ere, euskaldun kontzien-tzia banuen. Eta euskaraz hitzegiten nuelatik (Itziar-ek beti esaten du «zuelatik», eta inoiz ez «zuelako»; debar bati dago-kionez...) zigortzen nindutenean, abertzale senditzen nintzen. Gauza bera dotrina irakasterakoan, gurasoek, euskaraz egin ahal izateko, etxean irakastea erabaki zu-tenean. Horregatik sartu nintzen Deba-ko ikastolaren aldeko batzordean.

P. H.: Eta, harira bihurtuz, 1.969-an gar-tzelara joan, eta, noiz arte?

I.: 1.967-ko Urrira arte. Zortzi urte, beraz, ia-ia.

P. H.: Asko da!

I.: Beste askok urte gehiago egin dute bar-ruan. Burgos-koek esate baterako, zortzi urte beteak egin dituzte; eta Zalbide eta bestek oraindik ere gehiago.

P. H.: Eta Burgos-en, zer?

I.: 15 urte eman zizkidaten. Jokin-i, ber-rriz, bi heriotzapena; Izko-ri eta Uriarte-ri bezala.

P. H.: Eta zer pentsatu zenuen?

I.: Jokin-ek eta beste biek, gutxienez, ez zutela esperantza-biderik batera. Senarra hildakotzat eman nuen. Eta tema bakar bat nuen neure barruan: inoiz gartzelatik irtenez gero, Jokin-en lana eta nire lana, biak batera, neronek egingo nituela.

P. H.: Heriotzarik ez, ordea, Burgos-en; baina galbario luzea bai. Ez da hala?

I.: Horixe.

P. H.: Eta Franco-ren hilberria, non izan zenuen?

I.: Alcalá-ko presondegian. Oso zelebrea izan zen zuzendariaren jokabidea: «Franco ha muerto» esan zigun; «el rey ha muerto, viva el rey. Y mucho cuidado: no toleraré la menor exteriorización de sentimientos». Eta kafea edatea ere debe-katu zigun!

P. H.: Esperantza piztu zen zuengan ha-lere?

I.: Egia esangu dizut: bai eta ez. Bai, noski, Franco hiltzea garrantzitsua zela-

tik. Baina Ejerzitua hor zegoen, berbera. Hortaz... Denal dela, handik urtebetara ni kalean nintzen; eta handik hilabete batzutura Jokin ere bai: 1.977-ko maiatzaren 22-an, «Patrona de los Imposibles» omen den Santa-Rita-ren egunean, aspaldiko partez besarkatu nuen Jokin Bruselas-en. Zortzi urte paseak ziren, eta nolako urteak! Eta orain gauza bat esan nahi dut eta esan behar dut argi eta garbi: herriak atera ninduela, herriak eraman zuen burruka latzak atera ninduela, eta ez honen edo haren abileziak. Era berean gaur ere: presoak aterako badira, ez ditu Garaikoetxeak aterako, ez dakigu nongo elkarrizketa izkutuen bitartez, edo Oreja-ri esker; herriak, bere burrukaren bitartez baizik. Herriburruka: horra hor agintea atzera egitera behartzen duen bide bakarra. Horrengatik, eta errefuxiatuen kausa eta presoaren kausa neure egiten ditudalatik, herri-burruka hori onartzen dut eta txalotzen dut; hori baita fruitukorra izan daitekeen burruka-mota nagusia.

P. H.: Amnistiaren aldeko lana onartzen duzu, beraz?

I.: Bai, jakina. Baina herri honetan, eta Euskal Herriak bere burujabetasuna eskuratu ez duen bitartean, amnistiarik ez da izango. Burruka aurrera jarraituko da, eta detenituak izango dira, eta presoak. Egiazko amnistiarik ez dago independentzia gabe.

P. H.: Burruka harmatua ez dela geldituko uste duzu, beraz.

I.: Zernahi esanagatik ere, burruka harmatua gogorra da, eta ez zaio inori gustatzen; eta neri ere ez. Baina gauzak diren bezalakoak dira. Burruka, hitzez, eta hitz soilez, eraman nahi duenari zer kaso egiten dioten badakigu; eta parlamentoaren bitartez zer lortu daitekeen, ongi ikusi dugu azkeneko hilabeteotan. Herri batek,

horrengatik, bere burabetsa zinez nahi duenean, burruka harmatura jo behar izaten du. Eta hau behin eta berriz ikusi da historian barrena.

P. H.: Estatutu horrek, hitz batez, ez ditu Euskadiko arazoak konponduko; eta zu Estatuaren kontra zaude.

I.: Bai: Estatuaren kontra nago. Nafarroa «País Vasco» tik aparte gelditu da; eta Iparralde zer esanik ez. Euskara, berriz ere, bigarren maila gelditu da: erdaraz jakin behar da, baina euskaraz jakin beharrik ez dago. Batasuna eman lezakeen Euskaltzaindia, zapuztua izan da.

Quisiera dejar una cosa clara: que a mí me libró el pueblo, la lucha del pueblo y no la habilidad de nadie

«Orden Público» hori Madrilleren eskutian dago, nahiz «ertzañak» eta abar izan. Zentrale nuklearrak, amnistia, emakumearen arazo bereziak, aipatu ere ez dira egiten. Legeen eta gobernuaren ardatza Madrillen gelditu da; eta prentsa, telebista, eta abar, Madrillekoen kontrolpean daude. Kapitalismoaren oinarriak ikutu ere ez dira egin; eta lantegien beren mailan ere, langileek ez dute ahalmenik batera. Fiskalitatea, aurreraketak, inbertsioak, Estatuaren eskutian daude; eta oligarkiaren zerbitzutan, beraz. Nola nahi duzu Estatutu honi baiezkorik ematea?

Eta hitzak ondo pisatuz: «hainbeste burruka lardeskeri hau ateratzeko, benetan, etzuen balio». Agintean daudenak, gainera, lehengoak dira. Hor duzu Sainz; hor dituzu Suárez eta Martín Villa, Franco-ren garaian buruzagi ibiliak. Ez dut ulertzen, egia, Konstituzioari "ez" esan ziotenek, nola gaur Estatutu honi "bai" esan diezaioketen. Estatutua haren barruan sartzen baita!

P. H.: Hala ere, badakizu: zu bezalako abertzaleak omen dira gaurko aprobetxategiak...

I.: Badakit, bai. Baina berak, bai: berak ari dira besteen borroka aprobetxatzen. Bestela etziren Kontseilu Nagusian egongo, Garaikoetxea etzen egongo Suarez-ekin buruz buru hitzegiten; eta etzen ezer egongo. Baña... badakizu!

P. H.: Eta Herri Batasuna, zer?

I.: Euskal Herrian bi indar daude, eta ez hiru. Eta indar horiek PNV eta HB dira. Besteak... akolitutuak dira, PNV-aren akolitutuak. Eta honek proposatzen zuen erreformismoan erori dira, guztiz.

P. H.: HB-ak ez omen du politika-programarik; eta klase-kontzientziarik ez omen dago HB bultzatzen dutenengan.

I.: HB elkarte bat da, eta badakigu; joera desberdinetako jendeek osatutako frentea da. Baina HB-ean sozialistak eta klase-kontzientzia dutenak dira nagusi. HB-ak ongi daki ekonomiazko oinarririk gabe, politikaren mailako askatasunak eta esku-bideak ezer ez direla; gauza bera sozialismorik gabeko demokrazia. Ni neu ETA-ren barruan jabetu nintzen honetaz, eta sozialista naiz. Eta hala esana dut beti.

P. H.: Eta Iparraldearen etorkizuna nola ikusten duzu?

I.: Nere ustez han ere kontzientzia piztuzten hasia da. Ipartarrek ez dute «colonia veraniega» izan nahi. Gazte jendeak ez du kanpora joan nahi, eta lana bertan eskatzen du. Gauzak azkar aldatuko dira han.

P. H.: Eta emakumeen mogimenduz, zer diozu?

I.: Ongi ezagutzen ditut emakumeen eskabideak, eta ontzat ematen ditut, jakina. Baina emakumeen arazoa, herri-arazo osoaren parte bat da; eta aparte presentatzea ez da komeni. Ene ustez, gizonak ere lagundu behar dute sail horretan, emakumeen aldeko burruka berek ere egiten dutelarik. Gauza bera esan nezake zentrale nuklearrei buruz: eskabide horiek guztiz onartuz ere, gainerako burruka nagusitik ez berezteko eskatuko nieke.

P. H.: Azken hitzen bat geroari buruz?

I.: Hau esango nuke: Herri Batasuna indar handia dela; eta «independiente» direnak ere, ez direla helburuei buruz «independiente», HB-an dauden partiduei buruz baizik. Azken hitza, beraz, eta hau denontzat, Herrietako eta Hauzoetako batzarreek dutela. Eta arazoren bat gertatzekotan, «Kontrolleko Batzordeek» dutela azken hitza. Honi gogor eutsi behar zaiola; HB horrela ibiltzeko sortu baitzen, eta ez bestela. Eta herriak ez liguke hone-laxe ez jokatzea barkatuko.

TXILLARDEGI



“La lucha popular, he ahí lo único que hace retroceder al poder”.

ATZOKO ETA GAURKO GUDARIAK